

2025-2026 IKASTURTERAKO ESPEDIENTE-LEKUALDAKETAREN PLAZA-ESKAINNTZA
OFERTA DE PLAZAS PARA TRASLADO DE EXPEDIENTE EL CURSO 2025-2026

Gradua-Grado	Maila-Curso	Lekuak-Plazas
Odontología-Odontologia	2	3
	4	3
Fisioterapia-Fisioterapia	2	3
	3	11
Medicina castellano (MED30) Medikuntza gazteleraz	4	4*
Enfermería-Erizaintza Donostia/San Sebastián	2	5
	3	5

*Plazen kopapena jakingo da Irakaskuntza Unitatea hautatzeko prozesua amaitutakoan.

*Se conocerá la ubicación de las plazas una vez finalice el proceso de elección Unidad Docente

Eskaerak aurkezteko epea eta tokia	Eskabidea horretarako prestatutako aplikazio elektronikoaren bidez BAKARRIK aurkeztuko da, 2025eko ekainaren 12tik uztailaren 1era, Fakultatearen webgunean (Idazkaritza-lzapideak atalean) Eskatutako dokumentazioa (1. artikulua) eskabide elektronikoari erantsiko zaio. <i>Ohar garrantzitsua:</i> -EZ da osatu gabeko edo epez kanpo aurkeztutako eskaririk -Eskainitako plazetarako eskariak besterik ez da onartuko. -UPV/EHUren Medikuntza eta Erizaintza Fakultatearen lekualdaketaarako arautegi espezifikoaren 2 artikuluan jasotako baldintzak betetzen dituzten eskariak besterik ez da onartuko. -NAT eta NP kalkulatzeko, eskaera egiteko epean gainditutako irakasgaiak baino ez dira onartuko. Epe horretan espedientean ez bada jasotzen gainditutako irakasgairen baten kalifikazioa, behin-behineko justifikazio-dokumentu bat aurkeztuko da, eta behin betiko espedientea, lehen aipatutako bideetako edozein erabiliz, aurkeztutako dokumentazioan akatsak zuzentzeko ezarritako epean entregatuko da. -Dokumentazioan akatsak zuzentzeko epea: 2025eko uztailaren 2tik 11ra.
--	--

Gutxieneko baldintzak eskaera onartzeko	• UPV/EHUko Medikuntza eta Erizaintza Fakultatearen lekualdaketarako arautegi espezifikoaren 2. artikuluan jasotako baldintzak betetzea, hau da: • Jatorrizko erakundean, UPV/EHUren Medikuntza eta Erizaintza Fakultateak eskainitako titulazioen batean, 60 ECTS kreditu gainditu izana (edo horren baliokidea kreditutan, ordutan edo irakasgaitan, ikasturte oso bati dagozkionak). • Agortu gabe izatea UPV/EHUn ikasten jarraitzeko arauen parekoa. • 2.6 artikulura egokitzea- GAINBEGIRATU ikasturteko eskariak plaza eskaintzara egokitzeko. • Lekualdaketarako onarpen nota (LON) gutxieneko nota baino handiagoa edo berdina izatea (gutxienekoa nota: eskari egileak unibertsitatara sartzeko proba orokorra egin zuen urtean gradu horrek izan zuen gutxieneko nota edo gradurako azken proba zehatzak izan zuena) (<i>aplikazio informatikoak kalkulatu du LON nota I. eranskinean zehaztuari jarraikiz; ikusi 2.8 artikulua</i>). OHARRA: <i>EHUk argitara ematen du titulazio bakoitzerakoa kupo orokorreko onarpen nota edo “gutxieneko nota”.</i> EAEko hizkuntza ofizialetako batean (gaztelania edo euskara) B2ren pareko jakite maila egiaztatzea. Jakite maila hori ez dute egiaztatu beharko gaztelania hizkuntza ofiziala den herrialdeetakoek. Lekualdaketa Medikuntzako Gradua euskaraz egiteko bada, euskarako B2 mailaren parekoa den jakite mailaren egiaztagiria aurkeztube beharko da, edo Batxilergoko ikasketak euskaraz egin direla egiaztatzen duena.
---	--

Eskatutako dokumentazioa	Eskatzen diren dokumentu guztiak (1. artikulua) aplikazio elektronikoaren bidez atxikiko dira, horretarako prestatutako eremuen bidez. Hauek dira aurkeztu beharreko dokumentuak: 1. Elektronikoki betetako eskariaren inprimakia, sinatuta. 2. NANaren edo pasaportearen fotokopia. 3. Hautapropa, unibertsitatera sartzeko ebaluazio (USE) edo parekoaren txartel originala edo fotokopia erkatua (ikus II. eranskina*). 4. Egindako ikasketen Ikaslearen ziurtagiri akademikoa (originala edo fotokopia erkatua), zehaztuta titulazio bakoitzean eta maila bakoitzean gaingidutako irakasgai bakoitzaren ECTS kopurua eta kalifikazioa (ikus II. eranskina**). OHARRA: <i>Eskariak aurkezteko epean itxi gabe badago 2024-2025 ikasturteko espedientea, behin-behineko espedientea aurkeztu beharko da epearen barruan (2025ko ekainaren 12tik uztailaren 1era bitartean) eta, ondoren, behin betikoa, dokumentazioa zuzentzeko irekiko den hamar eguneko epean. LON eta LN kalkulatzeko, eskariak aurkezteko epean gaingidutako irakasgaiak baino ez dira kontuan hartuko.</i> EAEko bi hizkuntza ofizialetako batean, gaztelania edo euskara, B2 jakite mailaren pareko jakintza egiaztatuko duen agiria, unibertsitate aurreko ikasketak gaztelania hizkuntza ofiziala ez den herrialde batean egin badira. Lekualdaketa Medikuntzako Gradua euskaraz egiteko bada, euskarako B2 mailaren parekoa den jakite mailaren egiaztagiria aurkeztu beharko da, edo Batxilergoko ikasketak euskaraz egin direla egiaztatzen duena. Eskaera justifikatzeko aurkeztu nahi den beste edozein dokumentu. OHARRA: <i>Aurkeztutako agiriren bat Euskal Autonomia Erkidegoan ofiziala ez den hizkuntza batean badago, behar bezala itzuli eta legeztatu beharko da (ikus lekualdaketen arautegi espezifikoaren 1.5.c) eta d) artikulua).</i>
---------------------------------	---

Hautaketa irizpideak	• Ezarritako baldintzak betetzea (2. eta 3. art.) • Lehenespen Nota (LN) kontuan hartuta eskainitako plazetako batera sartzeko aukera izatea. OHARRA: Ikastegiak baldintzak betetzen dituzten eskaerak ordenatuko ditu, LN handienetik txikienera (bi dezimalekin), eta lekualdaketarako eskainitako plazak ordena horren arabera esleituko dira guztiak bete arte (LN kalkulatzeko, ikusi I. eranskina). <i>Baldintzak betetzen dituzten eskariak eskainitako plazak baino gutxiago badira, plaza hutsik geratuko dira 2025/2026 ikasturterako.</i>
Erabakia eta jakinarazpena	• Lekualdaketa onartzeko behin-behineko ebazpena idatziz jakinaraziko da eta ikastegiko web orrian baino ez da argitaratuko (idazkaritza – tramiteak). OHARRA: Onartutako ikasleei jakinaraziko zaie jarraitu beharreko prozedura fakultatean ikasten hasteko. Espediente akademikoa lekuz aldatzeko izapideak jatorrizko ikastegiak edo unibertsitateak egin behar ditu. Behin espedienteak lekuz aldatuta, eskatzaileak aurretiko matrikula egiteko eskaera egin beharko du web gunean argitara emandako data baino lehenago, eta bertan adieraziko ditu eginak dituen eta baliokidetu nahi dituen ikasketen planeko irakasgaiak. Behin fase hau ebatzita, irailean zabalduko da matrikula ikastegiko idazkaritzan egiteko epea.

Lekualdaketarako onarpen notaren (LON) kalkulua Lehentasun nota (LN)	I. ERANSKINA LON = GON + T $\frac{NECTS}{IECTS}$ - GON: gradura sartzeko nota, <u>arautegiaren 1.4. artikulua</u>ren azaldutako prozedurari jarraikiz. - NECTS: jatorrizko titulazioan gainditu diren nahitaezko gai/irakasgai guztien ECTS kredituen edo kreditu baliokideen batura (ez dira kontuan hartzen HAUTAZKOAK). - IECTS: jatorrizko titulazioan maila bat osatzeko behar diren ECTS kredituen edo kreditu baliokideen kopurua guztira (Europako Unibertsitate Eremuan IECTS = 60) - T: titulaziorako koefizientea (T = 1,0 Medikuntza, Fisioterapia eta Odontologiarako; T = 3,0 Erizaintzarako) NECTS eta IECTS kalkulatu dira <u>arautegi honetako 1. artikuluko 5.b puntuan</u> azaldu den moduan. Dena den, 2,5 balioa ezarri dugu NECTS/IECTS koefizientearen gehieneko kopuru gisa. LN = GON + 0,5*NN*F - GON: gradura sartzeko nota, <u>arautegiaren 1.4. artikulua</u>ren azaldutako prozedurari jarraikiz. - "NN": jatorrizko titulazioan gainditu diren nahitaezko gai/irakasgaien batez besteko nota, haztatuta ECTS kredituen edo kreditu baliokideen kopuruaren arabera, <u>arautegi honetako 1. artikuluko 5.b puntuan</u> azaldu den moduan. - "F": jatorrizko titulazioan gainditu diren nahitaezko gai/irakasgai guztien ECTS kredituen edo kreditu baliokideen batura (NECTS) zati jatorrizko titulazioko ECTS kredituen edo kreditu baliokideen kopurua guztira (adibidez: 360 ECTS Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Medikuntzako Graduan). OHARRA: LON eta LN kalkulatzeko, eskariak aurkezteko epean gainditutako irakasgaiak baino ez dira kontuan hartuko.
---	---

II. eranskina

(*) **Unibertsitatera sartzeko ebaluazioko edo proba baliokideko txartelean** jasota ageri beharko da unibertsitaterako sarrera nota (USN) eta graduan onartua izateko proba espezifikoen notak, (graduan onartua izateko nota (GON) kalkulatzeko). Gutxienez bi dezimal izan behar ditu zehaztuta.

Europar Batasuneko beste herrialdeetako edo Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetako ikasleentzat:

- **USN** izango da UHUNek emandako agirian agertzen dena;
- **GON** izango da USN gehi edozein unibertsitate espainiarretan eta/edo UHUNek ziurtatutako gaitasun zehatzerako probetako kalifikazioak, orotara 14 puntutara arte.
 - USN egiaztatzeko agiririk aurkeztu ezean, bost (5) izango da kalifikazioa.
 - Ez badira aurkezten GONa egiaztatzen duten dokumentuak, edo graduan onartua izateko proba espezifikoetako egiaztatzen dutenak, **nota izango da USNko nota bera.**

(**) **Ikaslearen ziurtagiri akademikoan** zehaztuta ageri behar dira:

- **Gainditutako** nahitaezko gai/irakasgai bakoitzari buruz:
 - Izena, kalifikazioa, maila eta ECTS, kreditu edo ordu kopurua.
- **Gainditutako** nahitaezko gai/irakasgai guztien inguruan:
 - Gainditutako nahitaezko gai/irakasgaien ECTS, kreditu edo ordu kopurua guztira, matrikulatutako mailak zehaztuta.
 - Gainditutako nahitaezko gai/irakasgai guztien batezbesteko nota haztatua, irakasgaien kreditu eta orduen kopuruaren arabera haztatua. Espediente akademikoaren batezbesteko nota 0-10 eskalan zehaztu behar da, 1125/2003 EDan ezarritakoaren arabera kalkulatuta.
- Europako unibertsitate sistematik **kanpoko unibertsitateen** kasuan:
 - Aurrekoez gain, **nahitaezkoa** izango da jatorriko erakundeak emandako **ziurtagiria** aurkeztea, zehaztuta:
Titulazioa osatzen duten nahitaezko irakasgai guztien izenen zerrenda, mailakamultzokatuta eta, ahal dela, zehaztuta horietako bakoitzari eskainitako denborakreditutan eta ordutan. Irakasgai bakoitzaren eta titulazio osoaren laburpena, zehaztuta nahitaezko irakasgai kopurua eta kreditu eta ordu kopuru osoa.

- **Kreditutan egituratuta ez dauden ikasketa planetan**, 10 ordu kreditu baten pareko izango da. Ordu kopururik adierazi ezean, urteko irakasgaiak 12 kredituren pareko hartuko dira eta sei hilekoak, 6 kredituren pareko.
- **Espediente akademikoaren batezbestekoa kalkulatzeko**, Hezkuntza Ministerioak ezarritako baliokidetzak erabiliko dira atzerriko sistema horien eta Espainiako hezkuntza sistemaren beraren kalifikazioak parekatzeko. Beraz, ikaslea atzerriko **sistema** batetik badator, atzerrian egindako ikasketen batez besteko notaren baliokidetzak agiria aurkeztu beharko du. Agiri hori Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren webgunearen bidez eskatu behar da.

OHAR GARRANTZITSUA: Adierazitako balio horiek beharrezkoak dira lekualdaketarako onarpen nota (LON) eta/edo lehentasun nota (LN) kalkulatzeko, eta, hortaz, horiek adierazi ezean, ezin izango da eskaria izapidetu.